

EAE-KO
ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN
ARTXIBO NAGUSIAREN
MEMORIA

2019

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SALA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

01/ Giza baliabideak

Zerbitzuko arduraduna: 1
Arloko arduraduna: 1
Artxibozainak: 3
Artxibozain laguntzailea: 1
Administrazio-laguntzaileak: 2
Administrari laguntzailea: 1
Mandatarari mendekoa: 1

02/ Instalazioak eta ekipamendua

Lakua II eraikina:

156 m²-ko hiru gordailu eta 312 m²-ko beste 6 gordailu, armairu konpaktuekin.

Gamarra eraikina:

15 metroko altuerako 11 korridore robotizatu, bi robotek kudeatutako eta 6.011 m²-ko azalera hartzen duten 25.000 erretilu edukizailerekin.

Eraikin bietan funtzio anitzeko erreprodukzio-makinak daude (fotokopiagailuak, inprimagailuak eta digitalizagailuak), transpaletak eta dokumentu-kutxak garraiatzeko orgak.

Kontsulta-gelan mikroformak irakurgailu-erreproduzizagailu bat, eta hari lotutako PC bat eta inprimagailuak daude; 2 PC, AKS/SGA artxibo-kudeaketaren sistema informatikorako sarbidearekin.

Kale Nagusiko eraikina:

Gordailu bat, armairu konpaktuekin.

Andia eraikina:

Gordailu bi, armairu konpaktuekin.

03/ Dokumentu-kudeaketa

3.1. ARTXIBO NAGUSIAN UTZITAKO AGIRIAK

Gordailuan utzitakoen kopurua: **649**


Gordailuan utzitako kutxen kopurua, guztira: **44.079**

Ekoizlearen arabera banaketa

EKOIZLEA	GORDAILUAK	KUTXAK GUZTIRA	GUZTIAREN %
URAREN EUSKAL AGENTZIA	26	1.983	4,50
ALOKABIDE	1	316	0,72
AHOLKU-BATZORDE JURIDIKOA	2	137	0,31
KULTURA ETA HIZKUNTZA-POLITIKA	24	520	1,18
EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK	141	6.701	15,20
HEZKUNTZA	91	2.870	6,51
ELANKIDETZA	40	592	1,34
EMAKUNDE	0	0	0
ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK	22	6.980	15,84
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	48	2.420	5,49
OGASUNA ETA EKONOMIA	25	1.249	2,83
IHOBE	17	798	1,81
IVAP	1	0	0
IZENPE	2	648	1,47
KONTSUMOBIDE	1	127	0,29
LANBIDE	17	6.152	13,97
LEHENDAKARITZA	16	696	1,58
INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA	79	4.742	10,75
OARC/KIEO	1	36	0,08
OSAKIDETZA	15	1.979	4,49
OSASUNA	32	1.580	3,58
SEGURTASUNA	2	198	0,45
SPRI	0	0	0
LANA ETA JUSTIZIA	41	3.334	7,56
TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	3	21	0,04
VIESA	0	0	0
GUZTIRA	649	44.079	%100

2011-2019 aldian sartutako kutxen kopurua

SARRERAK



3.2. DOKUMENTU-XAHUKETAK

Artxibo Nagusian egindako xahuketen kopurua: **70 kutxa**

Artxibo Nagusian guztira xahututako kutxen kopurua: **13.423 kutxa**

Bulegoko Artxiboan guztira xahututako kutxak: **1.569 kutxa**

Ezabatutako kutxen kopurua, guztira: **17.992 kutxa**

Artxibo Nagusiko xahuketak

Ekoizlearen arabera xehaturik

EKOIZLEA	XAHUKETAK	KUTXAK GUZTIRA
EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA	3	182
SPRI	1	84
OGASUN ETA EKONOMIA	13	1.786
GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU	1	52
LANBIDE	2	1.563
INGURUMENA, L. P. ETA ETXEBIZITZA	30	5.935
SEGURTASUNA	5	8.798
OSAKIDETZA	1	108
ENPLEGU ETA GIZARTE GAIAK	12	2.343
LAN ETA JUSTIZIA	2	572
GUZTIRA	70	13.423

Bulegoko Artxiboko xahuketak

Ekoizleen arabera xehaturik

EKOIZLEA	XAHUKETAK	KUTXAK GUZTIRA
SEGURTASUNA	3	94
LANA ETA JUSTIZIA	1	281
EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA	11	244
GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUA	1	107
OSASUNA	2	16
GUZTIRA	15	1.569

3.3. ARTXIBO NAGUSIAREN FUNTSEN HAZKUNDEA


2019ko bukaeran Artxibo Nagusian metatutako hazkundera hau izan da:

Gordailuak, guztira: **884.585 kutxa**

Garbiketak, guztira: **232.351 kutxa**

Artxibo Nagusiko kutxak 2019ko abenduaren 31n: **652.234 kutxa**

ARTXIBOAREN HAZKUNDEA



3.4. GORDAILU ROBOTIZATUAREN ERAIKINA

Instalazioan guztira **25.979** metalezko erretilu daude, eta **623.469** kutxa zuri normalizatu sartzeko edukiera dauka.

2019-12-31n, instalazioan guztira **506.246** kutxa daude, beraz, okupazio osoaren % **81,16** hartzen dute. Dokumentuak zuri koloreko kutxetan eta marroi koloreko kutxetan gordetzen dira; hortaz, 66.024 kutxa zuri eta 15.242 kutxa marroi gordetzeko leku dago.

3.5. ARTXIBO NAGUSIAN GORDETAKO AGIRIETARAKO IRISPENA

Irispenak Artxibo Nagusian

2019an egindako eskaerak, guztira: **8.808**

Horietatik, % 64 emakumeek egin dituzte (5.577) eta % 36 gizonek (3.231).

Ekoizleen eta irispen-sistemaren arabera xehaturik


EKOIZLEA	AKS-TIK KANPOKO KONTSULTAK	AKS-KO KONTSULTAK
URAREN EUSKAL AGENTZIA	20	282
ALOKABIDE	0	1
AHOLKU-BATZORDE JURIDIKOA	0	3
KULTURA ETA HIZKUNTZA-POLITIKA	74	47
EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK	2.068	1.745
HEZKUNTZA	208	260
ELANKIDETZA	1	0
ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK	3	3
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	471	76
OGASUNA ETA EKONOMIA	38	151
HOBETUZ	0	0
IHOBE	0	7
IVAP	1	93
IZENPE	0	2
LANBIDE	0	64
LEHENDAKARITZA	0	2
INGURUMENA, LURRALDE PLANG. ETA ETXEBIZITZA	1.182	1.069
KONTRATU BALIABIDEEN ADMINISTRAZIO-ORGANOA	0	0
OSAKIDETZA	74	28
OSALAN	0	0
OSASUNA	281	46
SEGURTASUNA	0	15
SPRI	32	22
LANA ETA JUSTIZIA	135	232
TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	1	35
VIKESA	0	68
GUZTIRA	4.557	4.251

Irispen motaren arabera xehaturik

IRISPEN MOTA	2019
Mailegua	5.092
Kontsultak	3.587
Erreprodukzioa	88
Behin betiko baztertzea	41
GUZTIRA	8.808

Irispen kopurua, 2011-2019 bitartean


- Mailegua
- Kontsultak
- Erreprodukzioak
- Behin betiko baztertzea



Irispen-sistemaren arabera xehaturik 2011-2019 bitartean

IRISPEN MOTA	AKS-TIK KANPOKOAK	AKS-KOAK
Mailegua	1.226	3.866
Kontsulta	3.211	376
Erreproduzioa	79	9
Behin betiko baztertzea	41	0
GUZTIRA	4.557	4.251


Eskaerak: irispem-sistemaren arabera 2011-2019 bitartean



Erabiltzaileen eta irispen-sistemaren arabera xehaturik

ERABILTZAILE MOTA	AKS-TIK KANPOKO IRISPENAK	AKS-KO IRISPENAK	GUZTIRA
ADMINISTRAZIOA	1.457	3.881	5.338
HERRITARRAK/IKERKETAK	3.100	370	3.470

Erabiltzaile motaren araberako kontsultak, 2011-2019 bitartean



3.6. BARNE-KUDEAKETAKO JARDUERAK

ERREPROGRAFIA

Erreprografia-zerbitzua

Artxibo Nagusiak agiriak erreproduzitzeko zerbitzua eskaintzen jarraitzen du, eta agiri horiek paperean nahiz euskarri digitalean eskuratu daitezke. 2019an, 2.597,18 euro fakturatu zaizkie ikertzaileei eta herritarrei.

BESTE JARDUERA BATZUK

Ikertzaileen erregistroa

2012. urtean sortu zen. Guztira **880 erabiltzaile** erregistratu dira. 2019an 101 ikertzaile berrik eman dute izena.

Agiriak txertatzea

2019an, **1.445** espedientetan gehitu dira agiriak.

3.7. ARTXIBO NAGUSIKO INFORMATIKA-BALIABIDEAK

ARTXIBOA KUDEATZEKO SISTEMA (AKS/ SGA) - S54B

XML fitxeroen kargatzea

Erregistroak kargatzeko programa horren bidez (jada gordailututa dauden edo transferitzeke dauden erregistroak), artxibatze-sisteman **162.959** erregistro irauli dira aplikazioan 2019. urtean, eta **43.979** kutxetan zeuden.

AKS aplikazioaren ezarpena

Sailkapen-koadroa garatzeko eta beste sail batzuetan aplikazioa abian jartzeko prozesuan aurrera egin da. Gaur egun, sail guztietan egiten dira AKSen bidezko artxiboak, bai eta honako erakunde autonomo, zuzenbide pribatuko erakunde publiko eta sozietate publiko hauetan ere: ELANKIDETZAN, URA-URAREN EUSKAL AGENTZIAN, VISESAN, ALOKABIDEN, IHOBE, OSAKIDETZAN ETA SPRIN.

2019-12-31n AKS/SGAn honako hauek daude deskribatuta:

- Bulegoko Artxibo mailan: 1.194.733 espediente
- Artxibo Nagusian: 5.287.502 espediente.

Gaur egun, honako hauek deskribatuta daude AKS/SGA sisteman (garbitutako agiriak ere sartuta daude):

- Artxibo Nagusian: **5.615.829** erregistrori dagozkien **586.786** kutxa.
- Bulegoko Artxiboan: **30.052** kutxa, **1.325.915** erregistrori dagozkienak.

Hortaz, Artxibo Nagusian gordailututako kutxen % **66,33** AKS aplikazioan deskribatuta daude (gordailutuko eta garbitutako kutxak dira).

Aplikazioan ezarritako aldaketak

Nabarmentzekoak dira aplikazioan sartutako honako aldaketa hauek:

- Nahitaezko sinadura elektronikoa ezartzea papera transferitzeko, garbitzeko, kontsultatzeko eta haren ordez kopia elektronikoa autentikoa jartzeko prozeduretan.
- Detektatutako errore eta ezegokitasunak zuzentzea.
- Hobekuntzak dokumentu elektronikoaren garbiketean.

AKS sistemaren inguruko prestakuntza

IVAPen bidez antolatutako ikastaroen gainera, aplikazioa erabiltzeko banakako prestakuntza ematen zaie hala eskatzen duten langile guztiei. Teknikariak arduratzen dira esleituta dituzten arlo funtzionalei prestakuntza emateaz.

ARTXIBO NAGUSIKO LINEAN KONSULTATZEKO KATALOGO PUBLIKOA (OPAC) – S54A

OPACaren garapena

2019an, OPACa garatzeko behar ziren aldaketak egiten jarraitu da. Horien artean honako hauek nabarmentzen dira:

- Herritarrek OPAC zerbitzura irispidea duten agiriak iraultzea.
- Hobekuntzak erregistratutako erabiltzaileen kudeaketan.

04/ANTOLAKETA

4.1. DOKUMENTU-FUNTSAK BERRANTOLATZEKO LANAK

HERRI ADMINISTRAZIO FUNTSA

Funtzio Publibako atala

Hainbat bilera egin dira Langileen Erregistroaren eta Enplegu Eskaintza Publikoak kudeatzeko aplikazio berriaren arduradunekin, prozedurak, serieak eta dokumentu-motak eta EIZUrekin eta Zerbitzuen Katalogoarekin duten harremana definitzeko.

Datu Babeserako Ordezkaritza azpifuntsa

Datuak Babesteko ordezkariekin lankidetzan aritu gara zerbitzu honek sortutako prozedurak, serieak eta mota-bereizgarriak definitzeko.

IZENPE azpifuntsa

Erakunde horrek sortutako prozedurak, serieak eta dokumentu-motak definitzen lagundu zaie bertako langileei, elektronikoki izapidetuko baititu.

NEKAZARITZA FUNTSA

Nekazal Ganbaren azpifuntsa

Gipuzkoako Nekazari Ganberaren dokumentazioa berreskuratu zen, eta Artxibo Nagusian berrantolatu eta gordailatu zen.

Arabako, Bizkaiko eta Arabako tokiko nekazaritza-ganberen dokumentazioa berrantolatu da, indarrean dauden antolamendu-irizpideetara egokitzeko, eta ondoriozko erregistroak AKS aplikaziora irauli dira.

URA FUNTSA

ABYC, Servicios Documentales enpresaren laguntzarekin, Jabari Publiko Hidraulikoko eta Obra Hidraulikoetako ataletako hiru lurralde-bulegoetako dokumentazioa berrantolatu da, eta bulegoak ohiko kontsultarako ez diren dokumentuekin libratu dira armairu askotatik. Transferentzia erregulartasunez egiteko irizpideak ezarri ditu.

Berrantolaketa bera egin zen URAk Gasteizen duen egoitza nagusian dauden Jabari Publiko Hidraulikoko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritzetan, eta bulegoak ohiko kontsulta-dokumentazioa duten armairu askotatik askatu ziren.

GIZARTE GAIEN FUNTSA

Familia Politika atala

Familia-prozeduren aplikazio berrira migratuta, non jada ez baita paperezko dokumentu gehiago sortzen, 5.000 kutxa baino gehiago transferitu dira Artxibo Nagusira, espediente mistoekin eta dagokien zati elektronikoarekin.

Izatezko Bikoteen Erregistroko paperezko dokumentazioa benetako kopia elektronikoz digitalizatzeko eta ordeztuko irizpideak definitu dira, eta COVASADek serie hori baloratu du.

KULTURA FUNTSA

Etxepare azpifuntsa

Bi bilera egin dira idazkariarekin, erakundearen dokumentu-produkzioa antolatzeko eta dokumentazioa artxibatzeke irizpideak eta epeak ezartzeko.

HEZKUNTZA FUNTSA

Ikastetxeen atala

Eibarko Armeria Eskolarekin harremanetan jarri ginen. Zentro horrek 100 urte bete zituen 2012an, eta bertako zuzendaritzarekin adostu genuen Artxibo Nagusira eramatea ikastetxeko dokumentazioaren lehen zatia, dokumentazio akademikoa, kudeaketakoa eta langileena. 2020an antolatzeke dago, eta kudeaketa arrunterako beharrezkoa

ez den gainerako dokumentazioaren lekualdaketa osatzeke. Zientzia Politikaren Atala.

Saileko gainerako atalak

Arloko artxibozain arduradunak jarraitu du Sailak sortutako serieak berrikusten, kutzak behar bezala kodetzeko eta horiek progresiboki AKSan kargatzeko. PLATEAK izapidetutako espedienteak AKSan artxibatzeari ekin zaio bulego gehiagotan.

OGASUN FUNTSA

Kontrol Ekonomikoaren Atala

IKUS (Eika) ordezkatzeko duen kontabilitate-aplikazio berriaren arduradunekin bilerak egiten jarraitu dugu, sistema berria parametrizatzeko prozedurak, serieak eta dokumentu-motak definitzeko.

Kontratazio Atala

Bilerak egiten jarraitu dugu kontratuen inguruko errekursoetarako organoko arduradunekin eta Kontratazio Elektronikorako Plataformako arduradunekin, espedienteak Dokusin eta AKSan sartzea aztertzeko.

INDUSTRIA FUNTSA

Gipuzkoako Ordezkaritzaren beharrak direla eta, ordezkariak kudeatutako serie desberdinetako 6.000 kutxa ingururen aparteko transferentzia egin dela adierazi da. Dokumentazio horren barruan Turismo eta Merkataritza funtsen dokumentazioa zegoen, aurreko legegintzaldietan sailak partekatzen zituztenean.

Industria Administrazio atala

Meategien, Energiaren eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzaren mendeko Industria Zerbitzuak duen dokumentazioa aztertu du, eta irizpideak ezarri ditu aldian-aldian transferentziak egiteko eta, horrela, bere lantokia urteetan pilatutako dokumentazioa duten kutxa askotatik askatzeko.

Basque Trade and Investment azpifuntsa

Basque Trade & Investment sozietate publiko berriaren antolaketa aztertu da, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko SPRIko eta Nazioartekotze Zuzendaritzako nazioarteko zerbitzuek 2017an bat egitearen ondorioz. Sozietate berri hori SPRIren menpekoa da, baina BT azpifunts berri bat sortu da Industria funtsaren barruan, haren dokumental sail guztiak hartzeko.

JUSTIZIA FUNTSA

Administrazio Erregistroen Atala

Kontratu txiki bat egin da AByC, Servicios Documentales, S.L. enpresarekin, Bizkaiko Elkartearen Erregistroko espedienteak Artxibo Nagusian antolatzeko, inbentariatzeko eta gordailutzeko. Hainbat arrazoi tarteko, kasu gehienetan itxita egon arren transferitu ez zen dokumentazioa zen.

Lanaren emaitza 2.015 kutxa izan dira, Bizkaiko espedienteekin.

LEHENDAKARITZA FUNTSA

Zerbitzu zuzendariak eskatuta, hainbat bisita egin dira Lehendakariaren eraikinerako, eraikinean dokumentazioa antolatzeko dauden beharrak ebaluatzeko.

Horien emaitza:

- Zerbitzu Zuzendaritzaren beraren dokumentazioa antolatzeko serieak eta irizpideak definitzea.
- Artxibora bideratutako sotoko lokalaren edukia aztertzea, laguntza-dokumentazioa edo bikoiztua garbitzeko eta artxibatu beharrekoa berrantolatzeko.

Bigarren zatia gauzatu ahal izateko AByC, Servicios Documentales enpresarekin kontratatu zen eta Gamarrako eraikinerako eraman zen berrantolatu beharreko dokumentazioa, funtsean Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarena eta Lehendakariatzako Idazkaritzarena.

Lan horien osagarri gisa baloratu da Euskal Gizataldeekiko Harremanak eta Kanpo Ekintza atalaren dokumentu-serieen multzoa.

INGURUMEN FUNTSA

Ingurumenaren Kalitatearen Atala

INGURUNET aplikazioan izapidetze elektronikoa ezartzeko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak izapidetutako zerbitzuak eta prozedurak berrikusteko eta egokitzeko prozesuaren barruan, Hondakin Ez Arriskutsuen Zerbitzuaren sailkapen-taula aztertu eta birdefinitu da. Lan horrek ekarri du, halaber, Zerbitzuen Katalogoan definitutako zerbitzuak berrantolatzea ondoren gordailututako kutxak egokitzea eta egoera berrira gordailutzea.

IHOBE azpifuntsa

IHOBEren dokumentazioaren berrantolaketa osatu da. Dokumentuak kanpoko zaintza-enpresatik Artxibo Nagusira eramane eta antolatu dira. AByC Servicios Documentales enpresa arduratu da dokumentazioaren tratamenduaz eta dokumentu-serieen identifikazioaz. Azken emaitza 798 kutxa gordailatu dituzte.

OSASUN FUNTSA

Prestazio eta zerbitzu sanitarioen atala

Aurretiazko Borondateen Erregistroko dokumentazioa berrorganizatu eta Artxibo Nagusian gordailatu da, eta araudi erregulatzailleak berak ezartzen duen bezala, duela 5 urte baino gehiago hildako pertsonen aurretiazko borondateen dokumentuak garbitu dira. Seriea COVASADek baloratu du.

Osakidetza azpifuntsa

Bilboko Amatasun Funtzari buruzko 4 kontsulta egin dira guztira.

ETXEBIZITZA FUNTSA

Odej, S. L. enpresak emandako laguntza teknikoaren laguntzarekin, 3.800 kaxa inbentariatu eta transferitu dira Bizkaiko Ordezkaritzaren birgaitze-laguntzak agiriekin Artxibo Nagusira.

LAN FUNTSA

LANBIDE azpifuntsa

Bilerak egiten jarraitu da Lanbideko artxibozainarekin eta bulego ekoizleekin, digitalizatuko diren prozedurak zein sailkapen-taulan falta diren prozedurak eta gordailatzeko dokumentazioa aztertzeko.

2019an, tokiko bulegoetan dagoen Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) dokumentazioa digitalizatzeko proiektuarekin jarraitu da, kudeaketa-aplikazioan kargatzeko eta, ondoren, Artxibo Nagusira transferitzeko. Lan hori Odej y Gureak enpresak eramaten du aurrera. 2019an 5.199 kutxa transferitu dira, hau da, 266.279 espediente eta 865.840 dokumentu elektronikoko.

2019an, jatorrian ziurtatutako digitalizazioaren bulegoetan ezarri da, eta, beraz, paperezko dokumentazioaren gordailuak behera egin du urtean zehar. 2020an erabat ezarrita egotea aurreikusten da, eta horrek paperaren desagerpena ekarriko du serie honetan.

OSALAN azpifuntsa

Hainbat bilera egin dira Osalaneko artxibo-teknikari berriarekin, erakundearen dokumentu-produkzioa definitzeko eta Zerbitzuen Katalogoan eta Artxibo Nagusiaren sailkapen- taulan islatzeko.

HOBETUZ azpifuntsa

Fundazioaren jarduerak bertan behera utzi direnez, erakundearen dokumentazioaren aparteko transferentzia batzu jaso dira.

LEHENDAKARIORETZAREN FUNTSA

Gobernu Idazkaritzaren Atala

Bilerak egin dira teknikariek eta EJIekin, aplikazioak aldatzeko, izapidetzen dituzten prozeduretako dokumentuak AKSan artxiba ditzaten.

4.2. DOKUMENTU-KUDEAKETAREN ANTOLAKETA

DOKUMENTUAK KUDEATZEKO EREDUA - Dokusi

EJIekin, Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzarekin (DIT) eta Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzarekin (DACIMA) batera lan egiten jarraitu da Dokumentuak Kudeatzeko Ereduaren garapenean. Ereduari **Dokusi** deitzen zaio.

Dokusiren Fitxategi Maisuen dokumentu-moten katalogoa berrikusi da, hura simulatzeko eta arintzeko. Urte hauetan erabili ez diren dokumentu-motak eta -azpimotak ezabatzea proposatu da. Aldaketak 2020ko lehen hiruhilekoan aplikatuko dira, aldaketen berri eman behar baitzaie sistema guztiei.

Dokusi Batzordeak 3 bilera egin ditu. 132 dokumentu-serieri esleitu zaizkie kodeak.

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzarekin eta EJIekin elkarlanean aritu gara sortutako dokumentuen kalitatea hobetzeko neurriak ezartzeko, dokumentuak behar bezala tipifikatzeko, erregistro-metadatuak esleitzeko eta dokumentuen metadatuak bistaratzeko.

DOKUSIREN OKUPAZIOARI BURUZKO TXOSTENA

Artxibo Nagusiak Dokusiren okupazio-mailaren jarraipena egiten du hiru hilean behin.

2019an zehar eboluzio hau izan da Dokusiren memoria okupatuan eta dokumentu kopuruaren hazkundera:

Data	2018/12/31	2019/03/31	2019/06/30	2019/09/30	2019/12/31
Dokumentuak, guztira	23.646.889	25.505.157	28.507.126	30.040.252	32.222.083
Memoria, guztira	8,57 TB	9,26 TB	10,36 TB	11,09 TB	12,04 TB

DOKUMENTU ELEKTRONIKOAK KUDEATZEKO POLITIKAN EZARRITAKO AUDITORIETARAKO APLIKAZIOA

EJIErekin sinatutako enkarguaren barruan, DEKPa ezartzen duen auditoretza-prozesurako datuak biltzea ahalbidetuko duen aplikazioaren eraikuntza amaitu da. Aplikazio honek, dokumentu elektronikoak sortzen dituzten informazio-sistemarako, DEKPan zehaztutako prozesu bakoitzeko ebidentziak biltzen ditu erregistratzeko, izapidetzeko eta artxibatzeke hiru inguruneetan, hau da, dokumentuen bizi-ziklo osoan zehar.

Aplikazioa dagoeneko ekoizten ari da, eta 2020an lehen auditoriak sortzea espero da.

4.3. DOKUMENTAZIOAREN BALORAZIO- ZIORAKO, AUKERAKETARAKO ETA DOKUMENTAZIORA JOTZE- KO BATZORDEA (COVASAD)

COVASADek aztertu beharreko serieen identifikazio-fitxak eta balorazio-proposamenak azkarrago egiteko, laguntza teknikoa eman da otsailetik urrira bitartean. Enpresa esleipenduna Scanbit SL izan da.

Bi bilera egin dira: urriaren 8an eta abenduaren 10ean. Horietan, Gizarte Gaietako, Hezkuntzako, Ogasuneko, IVAPeko, Lanbideko, Lehendakaritzako, Osasuneko, SPRIko eta Laneko funtsen eta azpifuntsen 118 serie baloratu dira.

EHAAn argitaratu zen Gobernantza Publiko eta autogobernuko sailburuaren 2019ko maiatzaren 6ko Agindua, 2018an aztertutako serieei buruzko Herri Administrazio, Hezkuntza, Justizia, Lan eta Lanbideren funtsen kontserbazio-egutegiak aztertzen dituen.

05/ Kanpo-harremanak eta prestakuntza

BISITAK ARTXIBO NAGUSIRA (GAMARRAKO ERAIKINA)

Artxiboen Nazioarteko Eguna zela eta, ekainaren 10ean bisita gidatuak antolatu ziren Gamarrako eraikinera, euskaraz zein gaztelaniaz, eta guztira 29 pertsona bertaratu ziren (22 emakume eta 7 gizon).

BILERAK, LURRALDE POLITIKAKO ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERITZAREKIN

Dokumentu, espediente eta artxibo elektronikoari buruzko Batzorde Sektorialaren lantaldean Ministeritzak antolatutako bileretan parte hartzen jarraitu dugu. EAE erakundearen aldetik, zerbitzuko arduradunak parte hartzen du.

Urtarrilaren 31n bilera bat egin zen bideokonferentzia bidez, eta bertan, bide elektronikoz aurkeztutako dokumentuak eztabaidatu ziren.

TEKNIKARIEKIKO BILERAK

Zerbitzuaren arduradunak, Kultura Ministerioak gonbidatuta, E-archiving-ari buruzko jardunaldi batzuetan parte hartu zuen, Madrilan, apirilaren 4an eta 5ean.

2019ko azaroaren 22an, Olga Gallego Fundazioak gonbidatuta, Zerbitzuaren arduradunak “Artxibo-sistemak XXI. mendean: profesionalak eta erakundeak garai likidoetan” jardunaldian parte hartu zuen. Bertan, “Artxibo-sistema eta artxibo elektronikoa bakarrik: bizikidetzaren posible da. Euskadiko Administrazio Publikoaren artxibo-sistema”.

DOKUMENTAZIOA BALIOESTEKO ETA AUKERATZEKO BATZORDEA (COVASED)

Zerbitzuaren arduradunak COVASEDen bileretako batean parte hartu zuen, Bilbon, 2019ko otsailaren 8an. Bertan balioetsi ziren COVASADek urriko eta abenduko bileran egin zituen proposamenak, besteak beste.

EMANDAKO IRAKASKUNTZA

Artxiboko teknikariek, IVAPen prestakuntza-eskaintzaren barruan, on-line ikastaro bat egin dute AKS aplikazioa erabiltzeko eta espediente elektronikoa artxibatzen. Bi deialdi egin dira, eta 109 ikasle bertaratu dira guztira (93 emakume eta 16 gizon).

JASOTAKO IRAKASKUNTZA

Arloko lau teknikariek Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren on-line ikastaroa egin dute azken lauhilekoan.

LANKIDETZA, KULTURA SAILAREKIN

Jaurlaritzaren legegintza-planaren barruan, Dokumentuen Kudeaketa Integralari eta Artxiboari buruzko Legea egitea eta onartzea ezarri zen, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren arteko ekimen bateratu gisa.

Prozesu horretan, lantaldeak hainbat bilera egin ditu jasotako alegazioak eta txosten juridikoak berrikusteko, 2020an zehar Eusko Legebiltzarrera bidaltzea espero den aurreproiektua izapidetzen jarraitzeko.

KULTURA MINISTERIOKO ARTXIBOEN ARROLDA EGUNERATZEA

Artxiboen Estatuko Zuzendariordeak eskatuta, Espainiako eta Iberoamerikako Artxiboen Zentsu-Gidan jasota dagoen Espainiako Administrazio Publikoaren Artxibo Nagusiari dagokion fitxa eguneratu da.

SARE SOZIALETAN PARTE HARTZEA: TWITTER

Artxibo Nagusiak 215 txio argitaratu zituen urtean zehar. 146 jarraitzaile ditu.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2020